

GIZA ESKUBIDEEN SAILKAPENA

1.- Definizioa

Jarduera honen helburua da Gizakien Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko artikulak Askatasun, Berdintasun eta Elkartasun Eskubideen arabera sailkatzea.

2.- Helburuak

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren egitura generikoa ezagutzea.

3.- Partaideak

Taldea/gela, 12 urtetik gorakoak.

4.- Materiala

Giza Eskubideen fitxa.

5.- Abiapuntuko arauak

Ikasleek ez dute Deklarazioa buruz ikasi behar berez; bai, ordea, taldean gogoeta egin eta, oro har, Deklarazio horren edukia ezagutu.

Ziurrenik, elkarrekin aztertzean, taldeek egingo duten sailkapena desberdina izango da. Jarduera honetan benetan garrantzitsua izango da ikasleek Deklarazio horretako eskubideekin barrukotasuna lortzea.

6.- Garapena

Taldea edo gela bost multzotan banatuko da. Talde bakoitzak Giza Eskubideak sailkatu beharko ditu, *Giza Eskubideak* izeneko jardueran egin duten sailkapenaren arabera (Askatasun Eskubideak, Berdintasun Eskubideak, Elkartasun Eskubideak). Talde bakoitzak kontsultarako materiala izango du eskura, hala nola, hiztegiak, Internet eta abar. Horiek erabili beharko dituzte terminoren bat ulertzen ez dutenean.

Lan hori bukatzean, guztion artean aztertuko dituzte emaitzak.

7.- Ebaluazioa

Nola sentitu zarete? Erraza izan al da artikulak sailkatzea? Zergatik? Ba al da ulertu ez duzuen zerbait? Zuen ustez, Deklarazioan agertzen diren eskubideak errespetatzen al dira? Zergatik uste duzue ez dituztela errespetatzen?

8.- Iturria

IIDHn oinarritua. Giza Eskubideak. Hiritar hezkuntza eta Giza Eskubideei buruzko modulua. El Salvador 1993.

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

- 1. artikulua:** Gizaki guztiak jaiotzen gara aske, eta eskubide zein duintasun berberak ditugu. Arrazoidun eta kontzientziadun garenez, errespetuz tratatu behar dugu elkar, beti.
- 2. artikulua:** Deklarazio honek aldarrikatzen dituen eskubideak gizaki ororentzat dira. Beste hizkuntzaren bat hitz egiten ez badugu ere, azaleko kolorea desberdina badugu ere, beste era batera pentsatzen badugu ere, beste erlijio batekoak izanagatik ere, txiro zein aberats izan, edo beste herrialde batekoak izanik ere.
- 3. artikulua:** Denok dugu bizitzeko eskubidea. Aske eta segurtasunez bizitzekoa.
- 4. artikulua:** Inork ezin gaitu esklabo hartu. Esklabotza, edozein modutakoa dela ere, debekatuta dago.
- 5. artikulua:** Inork ezin gaitu torturatu ezta modu ankerrean, gizagabe edo umilgarri tratatu.
- 6. artikulua:** Gure eskubide oro, leku orotan izan behar da aitortua.
- 7. artikulua:** Legea berdina da gizaki guztientzat. Ezin da legerik modu desberdinean ezarri.
- 8. artikulua:** Norbaitek ez baditu gure eskubideak errespetatzen, justiziaren babesa eskatu dezakegu.
- 9. artikulua:** Inork ez du eskubiderik, apetaren arabera, gu atxilotu, kartzelan sartu ezta bizi garen herrialdetik bidaltzeko ere.
- 10. artikulua:** Juzkatu egin behar bagaituzte, publiko izan behar du epaiak. Bestalde, epaituko gaituztenek, alderdikierarik gabeko izan behar dute guztiz.
- 11. artikulua:** Delituren bat leporatzen badigute, geure burua defendatzeko eskubidea dugu. Onartu egin behar dute, errudun garela frogatu bitartean, errugabe izango garela. Inork ez du eskubiderik egin ez dugun zerbaitegatik gu kondenatu edo zigortzeko.
- 12. artikulua:** Inork ezin du, besterik gabe, gure bizitza pribatuan, gure familian, etxean edo postan eskurik sartu.
- 13. artikulua:** Eskubidea dugu nahi dugunean gure herrialdetik atera edo herrialdera itzultzeko.

14. artikulua: Esesten badigute, eskubidea dugu beste herrialde batera jo eta han babesa eskatzeko. Eskubide hori galduko dugu, Deklarazio honetako artikulua betetzen ez baditugu.

15. artikulua: Herrialde batekoak izateko eskubidea dugu. Beste herrialde batekoak izan nahi badugu, inork ezin digu, apetaren arabera, halakorik debekatu.

16. artikulua: Ezkontzeko adina dugunean, hala jokatzeko eskubidea dugu, gure arraza, jatorrizko herrialdea edo erlijioa gorabehera. Emakume eta gizonen eskubide berak dauzkagu, bai ezkontzean bai banatzean. Inork ezin gaitu ezkontzera behartu, eta ezkontzen bagara, herrialdeko gobernuak gure familia babestu beharra du.

17. artikulua: Denok dugu eskubidea geure gauzak edukitzeko, eta inork ez du eskubiderik horiek kentzeko.

18. artikulua: Nahi dugun eran pentsatzeko eta pentsamoldea aldatzeko eskubidea dugu. Horrez gain, badugu eskubidea nahi dugun erlijioa askatasun osoz aukeratzeko, erlijioz aldatu edo nahi erara praktikatzeko, bakarrik edo beste lagun batzuekin elkartuta.

19. artikulua: Denok dugu iritzia izateko eta adierazteko askatasuna. Halaber, beste herrialdeetako gizakiekin ideiak elkarri trukatzeko eskubidea dugu, mugek horretarako enbarazurik egin gabe.

20. artikulua: Nahi dugun eran bildu eta elkartzeko eskubidea dugu, bakean eginez gero. Ez badugu nahi, inork ezin gaitu elkarte bateko kide izatera behartu.

21. artikulua: Eskubidea dugu gure herrialdeko erabakietan aktiboki parte hartzeko, zuzenean edo ordezkariak hautatuz. Gure agintariak aukeratu ahal izateko, aldiari-aldiari, manipulaziorik gabeko hauteskundeak egin behar dira, eta guztiok bozka dezakegu horietan askatasun osoz.

22. artikulua: Gutariko bakoitzak eskubidea du duintasunez bizitzeko beharrezko diren ekonomia, gizarte eta kultura eskubideak ase izateko.

23. artikulua: Eskubidea dugu lan egiteko, gure lana askatasunez aukeratzeko eta gu geu eta gure familia duintasunez bizitzeko aukera emango digun lana jasotzeko. Lan berdina egiten duten gizaki guztiek eskubidea dute, inolako bereizkeriarik gabe, lana berdina jasotzeko. Lanean ari bagara, eskubidea dugu gure interesak defendatzeko elkarrekin osatzeko.

24. artikulua: Denok dugu atseden hartzeko eskubidea. Beraz, lanaldia ezingo da luzeegia izan eta, aldiari-aldiari, ordaindutako oporrak izan behar ditugu.

25. artikulua: Bai guk bai gure familiak eskubidea dugu elikagaiak, arropak, etxebizitza eta, gaixotuz gero, medikuaren laguntza bermatuko digun bizi maila izateko.

Horrez gain, eskubidea dugu lanik egin ezin badugu, laguntza jasotzeko; lanik ez dagoelako, gaixorik gaudelako, zahartuta gaudelako edo gure gogoaren aurkako edozein arrazoi dela eta. Ume guztiek dauzkate eskubide berberak, nahiz eta haien gurasoak ezkondata ez egon.

26. artikulua: Eskubidea dugu eskolara joateko; oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa izan behar da. Eskolak elkarbizitza eta norberaren gaitasunen garapena bultzatu behar ditu. Gurasoek eskubidea dute beren seme-alaben hezkuntza mota aukeratzeko.

27. artikulua: Guztiok dugu eskubidea bizi garen gizartearen kulturen eta aurrerapen zientifikoan parte hartzeko eta horiez gozatzeko.

28. artikulua: Deklarazio honetan aldarrikatutako eskubide eta askatasun guztiak behar bezala babestuak izan daitezzen, beharrezkoa da hori ahalbidetuko duen gizarte eta nazioarteko ordena bat egotea.

29. artikulua: Guztiok dauzkagu inguruan ditugunekiko betebeharrak; eta, bestalde, horiek ditugu beharrezko osotasunean garatu ahal izateko. Gure askatasuna eta eskubideak mugatzen dituen gauza bakarra da besteen askatasuna eta eskubideak onartu eta errespetatu beharra.

30. artikulua: Inongo estatu, talde edo gizakik ezingo du Deklarazio honetako inolako oinarritz baliatu, bertan aldarrikatzen diren eskubide eta askatasunak ezeztatzeko.